

Bidaia Viennerat

10 bat urte San Frantses kolegioak nafatar ikasleak errezebitzen dutiela, 6.enetik 3.erat, DELF-a igaiten dūe, eta gurekin kursoak egiten dūtūe.

Aurten, 8 ziren 3.ean eta jin dira gurekin Viennerat. Horietan 5 elebidūn dadira: Mikel, Isabel, Naroa, Irati eta Saioa. Guretzat, aberas-tarzūn bat da, algarrekin mintza-tzen gira, hitz berriak ikasten...

Gure bidajea kondatū deizūe.

Lehen egunean: Oradour-sur-Glane hiria ikusi dugu, alemaniarrek suntsitu gunea, hilerria eta herri berria.

Mikel: "Gizonak, emakumeak eta

haurrak hor hil dira. Tristura, pena asko eta beldur pixka bat pasa genuen".

Bigarren egunean: Futuroscopera joan ginen, egun guzia pasa genuen han, oso ongi.

Saioa: "Atrakzioe asko egin genuen [...]. Gaueko espektakulua ikusi genuen, argia, ura... oso polita izan zen."

3. egunean: Marais Poitevin.

Naroa: "Barku batzuetan igo ginen eta uretik paseo bat eman genuen. Barkuetan beldur pixka bat izan nuen ez nintzelako inoiz barku horretan igo, baina azkenean oso ondo pasa nuen".

Bidajetik landa, hobeki ezagutzen gira eta oso pozik gira.

San Frantses kolegioko 3.eko ikasle elebidūnak



Eskolako jostaleku berria

Duela hiru urte, Azkaingo Santa Maria eskola jostalekua aldatzen hasi da. Kanpoa, ikasteko espazio bihurtzen ari da. Ideia sinple batetik sortu da: eskolako saiok kanpora luzatu nahi izana. Naturaz gozatzeko, haurren jakin-mina pizteko eta hezkuntza moduak anizteko. APEL-aren parte-hartzeari esker, landareak erosi ahal ukan ditugu. Christophe Larroquet-en enpresak segurtasuna eta eremuak egituratzeko beharrezko hesia eman du. Azkenik, Maylis Etchegoyenek (Indartia lorezaintza) hastapenetik bukaera arte proiektua gidatu du.

Botanika kontzeptutik landaketa-raino. Eskolako gurasoak jendetsu mobilizatu dira, lana partekatuz. Alaiak eta eraginkorrak izan dira. Lortutako emaitzak:

- Eremu desberdinak sortu dira: baratze xokoa, ikasgune terraza, isilguneak (kanpoan ikastea, sormena eta gizarte lotura bultzatzen dituztenak).
- Haurren eta hezitzaileen tokia hobeki berenganatzea.
- Eskola/guraso lotura indartu da. Hurrengo pausoak: itzaleko jarioak eman, seinaletika pedagogikoa osatu eta "kanpoan ikasteko" egunak antolatu.

Azkaingo Santa Maria eskola



Egun bat Lurraman

Egun on, Hiriburuko Doni Petri eskolako ikasleak gira (CE1-etik CM2-ra).

Lurramara joan ginen Ipar Euskal Herriko nekazaritzaren hitzordu nagusira.

Han, baserriko kabala anitz eta etxaldeko lanak ikusi genituen. Goizean, hainbat erakustaldi desberdin antolatu ziren. Adibidez: erlauntzen funtzionamendua, artzain

xakurraren lana, edo ardi ile moztea. Piknik baina lehen, itzuliño bat egin genuen toki-ko produktuak deskubritzeko (eztia, gasnak...). Arratsaldean, berriz, tailerrak egin genituen. Adibidez nola egiten den eztia, astoekin zaldi-gurdi ibilaldia, edo baserriaren eta nekazariaren arteko desberdintasuna ezagutzea. Biziki ongi atzeman genuen eta espero dugu heldu den urtean berriz joatea.

Doni Petri eskolako ikasleak



"Korri korrikan"

Egun on, gu Doni Petri eskolako ikasleak gara. Hiriburun. CPTik CM2ra, elkarrekin antzerki polita prestatzen ari gara. Antzerkiaren izena "Korri korrikan" da, eta euskarari buruz da. Korri izeneko pertsonaiak Korrikaren misterioa deskubritzen du. Pixkanaka, ulertzen du Korrika ez dela lasterketa bat bakarrik. Euskaren aldeko mugimendu handi eta ederra dela ikasten du. Antzerkian, Euskal Herriko zazpi probintziak ezagutzen ditugu. Lurralde bakoitzean ohiturak, dantzak, musika eta jendea aurkitzen ditugu. Ikasle bako-

tzak pertsonaia bat edo rol berezia du. Batzuk mintzaten dira, beste batzuk dantzatzen edo kantatzen dute. Egunero entseguak egiten ditugu gure eskolan, seriooki eta beti pozarekin. Elkar laguntzen dugu eta taldean lan egiten ikasten dugu. Oso motibatuak eta harro gara proiektu honekin. Laster Hazpamera joan gara gure antzerkia aurkeztera. Han, beste eskola pribatuetako ikasleekin aitzinean antzetzuko dugu. Denak prest gara eta elkarrekin erranen dugu: Gora euskara!

Hiriburuko Doni Petri eskola